

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Bernabe Bergara Aginaga

*Tolosa,
Gipuzkoa
(1929)*

Aurkibidea



Biografia



Zizurkilen jaioa da Bernabe, 'Fraisoro' sehaska-etxean. Oso txikitan hartu zuen Tolosako Montescue auzoko familia batek beraien etxean, eta beti sentiarazi dute eta sentitu izan da familia horretako partaide. Haurra zela Hernialdera joan zen bizitzera, amonaren etxera, eta 11 urterekin morroi joan zen Leaburura, eta ondoren Gipuzkoako herri askotan ibili zen morroi (Leaburun, Albizturren, Zerainen...). 14 urterekin, fabrikari lanean hasi zen, Tolosako 'Curtidos y Derivados'-en. Baina morroi lanetara itzuli zen 15 urterekin, berriz ere Tolosako 'Engomadora Moderna'-n lanean hasi arte. Ondoren, Anoetako paper-lantegi batean ere aritu zen lanean, eta handik hartu zuen erretiroa. Azken urteetan Berrobin bizi izan da.

Zintak

TOL-012

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Data:** 2010-02-05
- **Iraupena:** 55 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Transkribatzailea(k):** Etxeberria, Eider

Pasarteak

1. 75 urte zituela izan zuen bere ama biologikoaren berri

- **Erref:** TOL-012/003
- **Iraupena:** 0:03:40. **Hasi:** 00:02:34. **Bukatu:** 00:06:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Familia eredu desberdinak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Fraisoroko umea zen eta 14 urte ingururekin jakin zuen hori. Gerora, 75 urte zituela jakin zuen bere ama moja sartu zela erditu ostean; baina berak nahiago zuen hori ez jakin. Bera hartu zuen familia oso ona izan zen. Ezkontzeko dokumentuak ateratzera joan zenean, 1.000 pezetako libreta zuela konturatu zen.

2. Familian beti oso ondo tratatu izan dute

- **Erref:** TOL-012/004
- **Iraupena:** 0:01:43. **Hasi:** 00:06:14. **Bukatu:** 00:07:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Familia eredu desberdinak

Laburpena:

<p>Ama ezagutzeko aukera eman ziotenean gaztetan, ez zuen nahi izan. 27 urtera arte morroi ibili zen jatekoa lortzeko. Adoptatu zuten familian oso ondo tratatu izan zuten.</p>

Transkripzioa

- Zizurkilgo sekretariyuak esan zian ba ezkontzeko agirik ateratzea jun nintzanen, "fe de bautismo" ta ateratzea jun nintzanen, esan zian... Ta gaiñea esan zian, "Ama ezautzeko gogoik ba al daukazu?", ta hain zea ibiliya neon ni, baserritik baserria morroi ta famili haundiya. Beatzi, beatzi senide giñen, senide ni ordeko, baiño beatzi senide. Ta ibili giñan, ba, hok esaten duen bezela. Gerra ondun, [...] ailleatzeatikan, baserritan ibilli naiz ni hogeita zazpi urte arte.

- Morroi?

- Morroi, bai, eon naiz, eon naiz Ormaiztegin, geo zazpi urte t'erdi in nittun Zeraiñen, ta hola. Handikan penakin atera nintzen, lagun batek deitu ta enpresa etortzeko

ordura arte etxian? Kuriosidadia, ordekoa ta bestek berdin-berdin tratatuk zian? Ez zan antzematen diferentziik?

- Kasik nik ezautzen dedala, kasik, neroni hobeto.

- Bai?

- Bai. Egiya esan behar badet, bai. Ta nik haregatikan ni beharbada ez nintzan prekupatuko. Gaizki tratatu baniñuen akaso, gehixeo espabilatuko nintzan, baiño ez, ez, ez nun izan nunbait.

3. Gerrako arriskuaz jabetzen ez zenekoa

- **Erref:** TOL-012/006
- **Iraupena:** 0:03:05. **Hasi:** 00:09:43. **Bukatu:** 00:12:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Fabriketako sirenen bidez jakin zuten gerra hasi zela. Orduan ez zuen beldurrik pasa, ez baitzen arriskuaz jabetzen: ihesean zebiltzan gizon batzuei gosaria eman zien zenbait egunetan, nahiz eta pareko menditik tiroka ari ziren; azkenean, gizon haiek harrapatu eta fusilatu egin zituzten.

4. "¡Vamos a morir!"

- **Erref:** TOL-012/007
- **Iraupena:** 0:01:46. **Hasi:** 00:12:48. **Bukatu:** 00:14:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

<p>Gogoan du Urkizutik jaisten ziren soldaduek beherakoan "vamos a morir" esaten zutela.</p>

Transkripzioa

- Hernialden ez zan beste istoriik izan, ez zan...?
- Beste istoriik izan? Ba ez, soldadun, Urkizutikan etorri zian soldaduk goitik behera, gerra bukatzea o zeatu zan garaiyan. Frentia Tolosako mataderoko hortan zeon frentia. Ta soldaduk nola jetsi zian, bai, Urkizu aldetikan, "¡Vamos a morir! ¡Vamos a morir!" esanez.
Hala esaten zuen
- Bai, hala esaten zuen.
- Baiño ze soldadu?
- Soldadu pillá.
- Naparrak?
- Ez dakit naparrak zian o zer zian, nik ez nion ordun galdetu momentu hartan. Ez dakit, haik handik jetsi zian, ta bestek hemen zeuden, "así que"... Hoik puntatik punta ibili zian. Ez naiz hola besteik zeaten.
- Ez zan ikusi soldaduik eta zuen etxe ingurun?
- Ez, ez, ez, ez, han pasa bakarrik in zian. Han pasa bakarrik in zian. Oain, hemen Tolosan bai. Gure etxe ingurun, kuartelen, garai bateko plaza [...] kartzela hortan, ta hor denbora askon eon zian soldaduk.
- Ta zuen gurasongandik eta notizik jasotzen zenituen horrena?
- Zeiñenak?
- O zuen etxen bazan baten bat ordun Tolosako etxen?
- Bai, bai, bai, bai, soldaduk hor eon zianen? Bai, bai. Momentu baten, izango zan aitta bakarrik eon zana, aitta ordekua bakarrik eon zana. Bestek esan dizut Hernialden nola zeuden. Hola, gaiñantzen ez. Gaiñantzen ez zen etxen gorabeheraik izan.

5. Ontze-fabrikari lanean

- **Erref:** TOL-012/009
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:15:44. **Bukatu:** 00:17:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Falangistak
- Ekonomia eta industria » Industria motak » Larrugintza

- Ekonomia eta industria » Lan-prozesuak
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Tolosaldeko lantegiak

Laburpena:

Lehen Falangera joan behar zen lanean hasi nahi bazen. Bernabek urtebete eman zuen ontze-fabrikari lanean: han larruarekin zer egiten zuten aipatzen du. Handik Galdakaora eraman zuten fabrika, baina Bernabek ez zuen nahi izan hara joan eta baserrira joan zen morroi.

6. Lan egiteko Falangean izena eman behar

- **Erref:** TOL-012/010
- **Iraupena:** 0:02:14. **Hasi:** 00:17:14. **Bukatu:** 00:19:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Falangistak

Laburpena:

<p>Lan egiteko Falangean izena eman behar izaten zuten; eta izena ematekotan, astean behin joan behar izaten zuten hara. Falangean zer egiten zuten aipatzen du.</p>

7. Ordiziara morroi joan zenekoa

- **Erref:** TOL-012/013
- **Iraupena:** 0:02:39. **Hasi:** 00:21:51. **Bukatu:** 00:24:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Albizturren 3 urtez lan egin ostean, Tolosara etorri zen etxera. Ordizian hasi zen orduan morroi; oso familia jatorra tokatu zitzaion han eta sagarrondo asko zeukaten.

8. Estraperloko garaia

- **Erref:** TOL-012/014
- **Iraupena:** 0:02:23. **Hasi:** 00:24:30. **Bukatu:** 00:26:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Ordizian morroi zegoela, estraperloan txekorrak hiltzen zituzten nagusiak. Zeraindik Segurara bizkarrez eramaten zituzten txekorrak 2-3 lagun artean.

9. Morroi zenean egiten zituen lanak

- **Erref:** TOL-012/015

- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:26:53. **Bukatu:** 00:28:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak
- Baserria » Baserriko lanak » Garia
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Ordizian morroi zegoela, baserriko lanetan aritzen zen. Behiak nola jezten zituen azaltzen du; lurra ere lantzen zuen. Garia lehen egiten zuten, baina ohitura hura galdu egin zen harria egin eta gari guztia jaulki zuenean.

10. Sagarren ekoizpen handia baserrian

- **Erref:** TOL-012/016
- **Iraupena:** 0:02:24. **Hasi:** 00:28:28. **Bukatu:** 00:30:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroztera
- Baserria » Baserriko lanak » Sagarra, sagastiak

Laburpena:

<p>Sagarra nola biltzen zuten azaltzen du: zaku handi bat lotzen zuten gorputzaren inguruan sagarrak kargatzeko, eskuz biltzen zituzten sagarrak... Sevillara saltzen zituzten sagarrak eta Sevillatik etortzen zen kamioia haien bila: urte batean 10.000 kilo bidali zituzten. Ordizian ere saltzen zituzten sagarrak.</p>

11. "Engomadora modernan" lanean

- **Erref:** TOL-012/017
- **Iraupena:** 0:03:06. **Hasi:** 00:30:52. **Bukatu:** 00:33:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-prozesuak
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Tolosaldeko lantegiak

Laburpena:

Ordizian morroi egon zenean, oso gustura egon zen, etxekoa balitz bezala tratatzen zuten. Azkenean, fabrika lanean hastea erabaki zuen eta 28 urte eman zituen Tolosako "Engomadora moderna" lantegian. Han zer lan egiten zituzten azaltzen du.

12. Neska-lagunarekin hasi zenekoa

- **Erref:** TOL-012/020
- **Iraupena:** 0:03:41. **Hasi:** 00:34:54. **Bukatu:** 00:38:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea

Laburpena:

Neska-laguna Hernioko erromeria batean ezagutu zuen, nahiz eta auzokoa zen eta egunero igarotzen zen bere etxe paretik. Neska-lagunarekin egiten zituen planak aipatzen ditu. Jendea harritu egin zen besotik "azkarregi" hasi zirelako heltzen.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-04-06

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com